

BIOEF Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioak Gaixotasun kardiobaskularri buruzko ikertzeko proiektuetarako 2025ko diru-laguntzak

Xedea

Gaixotasun kardiobaskularrei buruzko ikerketara dago bideratuta deialdia, arlo eta lerro hauetan:

- Sustapena, prebentzioa, detekzio goiztiarra eta diagnostikoaren hobekuntza.
- Tratamendu berriak eta osasunari aplikatutako teknologiaren erabilera.
- Gaixotasunaren etiologia.
- Osasun publikoan eta epidemiologian azterketak.
- Pazienteei ematen zaien prestazio asistentzial eta psikosoziala hobetzea.
- Pazientearen bizi-kalitatean eragina duten alderdietan oinarritutako ikerketa
- Ikerketa soziosanitarioa eta antolakuntzakoa, pazienteen, senideen eta bestelako zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko.

Erakunde onuradunak

ZTBESko agenteek elkarlaneko proiektuak aurkeztu ditzakete; hau da, entitate talde batek egindako proiektuak izan daitezke, entitate horiek onuradunak izan zein ez (2. artikulua honetan azaldu bezala), beti ere entitate horiek proiektua garatzeko beharrezkoak badira eta horretarako gaitasuna badute, DLOren 11.3 artikuluan xedatutakoarekin bat. Elkarlaneko proiektuetan, lankidetzak-akordio bat itundu beharko dute parte hartzen duten erakunde guztiek, haien legezko ordezkariak sinatuta, proiektua gauzatuko dela bermatuko duena eta emaitzak ustiatzeko hitzartutako baldintzak jasoko dituenak.

Proiektuen ezaugarriak

Ikertzaile nagusi arduradun batek edo bik gidatuko dute talde eskatzailea. Eskaria bi ikertzaile nagusik (IN eta IN laguntzailea) aurkezten dutenean, biek izan beharko dute laguntza eskatzen duen entitatearen plantillakoak, eta haietako batek solaskide gisa jardungo du (lehenespenez, IN izango da).

Ikerketa sanitarioko zentroen kategoriako akreditazioa duen ZTBESren eragile batek, gutxienez, hartu behar du parte.

Ikerketa-proiektuek **2 edo 3 urteko iraupena** izan dezakete, eta 2025ean hasi beharko dira. Finantza daitekeen gehieneko zenbatekoa **200.000 eurokoa** izango da proiektu bakoitzeko.

Ekipoaren betebeharrak

Ikertzaile nagusiek (baita IN laguntzaileek ere) **eskabide bakar batean** parte hartu ahal izango dute rol horretan. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugarik izango proiektu batean baino gehiagotan parte hartzeko.

Bereziki aintzat hartuko dira gorabidean dauden ikertzaileek zuzendutako proiektuak, hau da, ikertzaile nagusia (IN) 1980an edo geroago jaio eta aurrez lehiaketa-deialdien bidez finantzatutako proiektuetan parte hartu ez dutenak.

Talde eskatzaileetako kideek formalizatuta izan behar dute beren funtzionario- edo kontratu-lotura ZTBESko agente onuradunarekin. Lan-lotura proiektua osorik gauzatzeko epea baino laburragoa bada, entitatearen legezko ordezkaritza duen pertsonak sinatutako adierazpena beharko da atxikimenduari eusteko konpromisoa hartuko duena.

Aurrekontuaren baldintzak

UPV/EHUK aurkeztutako eskaerek **zeharkako kostuen %10** barne hartu beharko dute (kostu zuzenen gainean kalkulatuta).

Espresuki kanpo geratzen dira altzariak eta instalazioak erosteko gastuak, ekipo informatiko pertsonalak edo kudeaketakoak erostea eta bulegoko material orokorra (fotokopiak, tonerra edo telefono-gastua) finantzatzea, bai eta prestakuntza-jarduerak, elkarte zientifikoentzako kuotak eta argitalpenetako harpidetzak ere.

Azpikonttratutako jardueraren kostu osoa, onuradun bakoitzeko, ezin izango da onuradun horren aurrekontu finantzagarriaren **% 50** baino handiagoa izan.

Eskaerak aurkezteko modua

Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira.

Eskabide bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko.

Koordinazio-proiektuen kasuan, koordinatzaile-lana egingo duen erakundea izango da eskabidea bidaltzeko arduraduna.

Ikerketa Errektoreordetzako langileek erregistratuko dituzte eskaerak, aplikazioaren bidez, UPV/EHU proiektu koordinatu baten buru gisa aurkezten den proiektuetan.

Horretarako, IPEk dokumentazio guztia convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali beharko dute **2025eko azaroaren 28a baino lehen.**

Eranskinetako txantiloiak [esteka honetan](#) deskargatu ahal izango dira.

Eskaerak aurkezteko epea

2025/11/06tik 2025/12/09ra.

Informazio gehigarria:

https://www.euskadi.eus/dirugantza/2025/gaixotasun_kardiobaskularrari_buruzko_gantza_a_bioef/web01-tramite/eu/

Kontaktoa:

Olatz Sabas García-Borreguero (I+G+b Kudeaketa / Gestión de I+D+i)

T +34 94 453 61 43 olat@bioef.eus www.bioef.eus